

Parketxe Sarea

Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren bloga

TXOOOOTX, zatoz Ataunera !!!

GOZATUA ATAUNEN

SAGARDOGINTZA, J.M. BARANDIARAN MUSEOA, ARALARKO PARKE NATURALA...

Ataungo Urbitarte sagardotegiarekin elkarlanean, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak (GPS) eskaintza berri bat prestatu eta sustatu du. Ataungo kultur eta natur ondarea, modu atsegin batean, ezagutzera ematea eta balioztatzea da helburu nagusia.

Norbanakoei zein taldeei zuzendua dago.



BISITARIAK BI AUKERA DITU:

1. AUKERA

- **Barandiaran Museora eta errota/ zerrategira bisita gidatua.** Jose Migel Barandiaranen garrantzia eta lana ezagutzeko aukera paregabea da. Gainera, museoan dagoen errota eta zerrategia martxan ikusteko aukera eskaintzen da. Ordu eta erdiko iraupena.
- **Urbitarte sagardotegira bisita gidatua,** sagardoaren kulturaren funtsa ezagutzeko. Ordu erdi inguruko iraupena.
- **Bazkaria/afaria Urbitarte sagardotegian.**

PREZIOA, guztia barne: 29 €

2. AUKERA

- **Lizarrusti-Lareo mendi ibilaldi gidatua.** Hiru ordu inguruko ibilaldia da, Lizarrustiko Parketxetik Lareoko urtegiara joan-etorria egiten duena. Igotzerakoan hainbat geldialdi egiten dira bidean, non Parke Naturalaren inguruko gaiak lantzen diren: Babes guneen garrantzia, gizakiaren aztarna naturan, ekosistemak, bertako fauna, flora, ur eta baso ustiapena besteak beste.
- **Urbitarte sagardotegiaren bisita,** sagardoaren kulturaren funtsa ezagutzeko. Ordu erdi inguruko iraupena.
- **Bazkaria/afaria Urbitarte sagardotegian.**

PREZIOA, guztia barne: 30 €



ESKAINITZA EPEA:

- Urte guztian zehar, goizez zein arratsaldean, asteartetik igandera (maiatzetik abendura asteazkenetan itxita)

BALDINTZAK:

- Aurrez erreserba eginda eta gutxieneko taldea osatzen bada (15 pertsona)
- Eskaintza Itxia da (museoa edo ibilaldia + sagardotegira bisita + bazkaria/afaria)
- Sagardotegi menua: bakailu-tortilla, bakailu takoa, txuleta, gazta/membrilloa/inxaurrak eta sagardoa)
- Haurrentzat eskaintza berezia: 15 euro guztia barne (haurren menua: kroketak, oilaskoa, postrea)

Konpartitu hau:

Atsegin dut:

Be the first to like this.

MARIA MAMERTAREN ...

IPUIN KONTAKETA BA...

EGUNSENTIA, ARANT...

© 5 Otsaila, 2014 [<http://parketxesarea.org/2014/02/05/gozatua-ataunen-sagardogintza-jm-barandiaran-museoa-aralar-parke-naturala/>]

Follow